

Bilbao, 2022.eko irailaren 15a

**Osasunerako Sailburuordetzaren** arabera, herritarren artean lortutako inmunitate-maila altuak ikusita, COVID-19 epidemiari dagokionez bilakaera izan da eta egoera aldatu egin da. Egoera honek irauten dauan bitartean, norbanako eta eremu ahulenen zainketan jarriko da arreta.

Gotzain Kontseilutik **dei egiten dogu, normaltasuna berreskuratu** eta gure eleiza eta pastoralgintzarako lokaletara itzuliz, eurretan batu gaitezan eta jardun daigun.

Eutsi deiegun, ohiko izan beharko leukien arren, pandemiak zehaztasun handiagoz kontuan hartzera bultzatu gaituan **prebentziozko gomendioei**:

- Barruko eremuak maiztasunez aireztatu, airearen kalitatea ziurtatzeko eta germenen zabalkundea gitxitzeko.
- Eskuak sarri garbitu.
- Maskara erabili arnasketa-sintomatologia, edo covid-19az kutsatuta egotearen susmoa, dogunean, beste edozein gaixotasun arrunt izan ezkeru jokatu behar dan lez.
- Errespetua maskara jarrita eukitea erabagi daben pertsonei.

Eleizkizunetan, honako honeek berreskuratu daikeguz:

- ur bedeinkatua bataiarrietan (sarritan aldatu).
- Bakearen agurra.

Eukaristiako ministroek gel hidroalkoholkoa erabiliko dabe komuninoa banatu aurretik eta ostetik.



Gotzain Kontseiluaren izenean